

IAZKO HEZURRAK

UNAI ELORRIAGA

marraziba
Susa

2029
marraziba

Nerea Losada - Andrea Cachazo
Aixerrota BHI, 15-16

Aurkibidea

Unai Elorriaga	3
Sarrera	3

lazko hezurak

- Kokapena 4
- Gaia 4
- Argumentua 5
- Istorioa 5
- Pertsonaiak 6
- Egituraketa 6
- Baliabideak 7
- Iritzia 8

Bibliografia eta webgrafia	9
----------------------------------	---

Unai Elorriaga

Unai Elorriaga du izena *lazko Hezurak* nobelaren egileak. Idazle hau 1973. urtean Bilbon jaiotako eta Algortan bizi den idazle euskalduna da. Filologia ikasketak egin zituen eta hainbat urtean mota guztietako lanetan aritu da: irakasle, zuzentzaile, ikertzaile, itzultzaile... Giltza-Edebé argitaletxean ere aritu izan da, testu-liburuak sortzen eta itzultzen.



Autore honen lehenengo liburua literatur saiakera izan bazen ere, literatura sortzeko ibilbide sendo bati ekin zion berehala. Harrezkero, orain arteko lau eleberrietan, *SPrako tranbia* (2001, Elkar), *Van't Hoffen ilea* (2003, Elkar), *Vredaman* (2005, Elkar) eta *Londres kartoizkoa da* (2009, Elkar), eraikitako mundu literario berezi eta konplexuari esker, euskal literaturak ahotsik bereizgarrienetakoa duen idazlea lortu du; hainbestearaino ezen haren literatur moldea edozeinen arreta erakartzen duten horietakoa izatera iritsi baita. 2002an Espainiako Narratibako Sari Nazionala irabazi zuen *SPrako tranbia* obrarekin, idazle honen lehenengo eleberria, hain zuzen ere.

Sarrera

Unai Elorriaga idazle euskaldunaren azken obra honek gaur eguneko gizartean garrantzi handia duen gaia du oinarri: indarkeria. 2014. urtean argitaratutako eleberria da hau; hala ere, XX. mendeko azken hamarkadetan kokatzen da istorioa, 70eko hamarkadatik aurrera bereziki, protagonistaren jaiotzetik aurrera.

Nahiz eta obrak aurrera egin ahala izen eta pertsonaia gehiago agertu, pertsonaia aipagarriena, hau da, protagonista, Irene Arrias da, istorio osoaren oinarria. Irene Arriasen bizitzako momentu zehatz batzuetatik abiatuz, munduko toki guztietan dagoen biolentzia erakutsi nahi du autoreak, hainbat kasu zehatz aipatuz. Istorioaren oinarria, protagonistaren bizitza hain zuzen, Algortan garatzen du idazleak, bera hazi den herrian.

Eleberrian izen eta datu asko agertu arren, obra nahiko erraza da irakurtzeko, Unai Elorriagaren estiloa ulerterraza baita. Gainera, Irene Arriasen bizitzaren atalen artean narrazio txikiak tartekatzen dituenaz, liburuaren irakurketa atseginagoa da.

Iazko Hezurak

Kokapena

XX. mendearen bigarren zatian kokatzen da Unai Elorriagak idatzitako eleberria, 70eko hamarkadatik aurrera bereziki, Irene Arrias jaiotzen denetik helduarora heltzen den arte; hala ere, idazleak hainbat urtetako gertakariei egiten die erreferentzia, bai XX. mende hasierakoei baita XIX. mendekoei ere.

Istorioaren mamia, hau da, Irene Arriasen bizitza, Algortan eta bertako inguruetan gertatzen da batez ere, autorea hazitako herri berberean. Herri horretako kale guztiak aipatzen ditu idazleak, garai hartako izenekin. Nahiz eta nobelaren oinarria Algortan gertatu, mundu osoko gertakariak ere kontatzen ditu; beraz, oso zaila izango litzateke istorioa leku bakarrean kokatzea. Hala ere, Algortatik aparte, leku garrantzitsu eta aipagarrienak Ruanda eta Euskal Herria izango lirateke, bertan gertatutako genozidio eta masakreak kontatzen dituelako.

Eleberriaren oinarrizko gaia bortizkeria da, mundu osoan betidanik existitu eta gaur egun ere existitzen den indarkeria. Idazleak gai horretatik abiatuta eta emakume baten bizitzako gertaerak oinarri hartuz, munduko toki desberdinetan gertatu izan diren eta gertatzen ari diren hainbat gertakari deskribatzen ditu, nobelaren gaia argi uzten dituztenak.

Elorriagak idatzitako istorioa pertsonaia bakarrean oinarritzen da: Irene Arrias da nobela honetako protagonista, bera da istorioaren mamia garatzeko beharrezkoa den pertsonaia. Ireneren ama eta aita ere agertzen dira istorioan, baina bigarren mailako pertsonaiak dira, bere senarra eta alaba bezala. Pertsonaia horietatik aparte, beste hainbat ere aipatzen ditu idazleak, baina haietan guztiz sakondu gabe.

Edukia

Gaia

Eleberrian, argi dago autoreak irakurleari transmititu nahi dion gaia:

Mundu osoan betidanik egon diren gertakari bortitzak eta errealitatean dagoen indarkeria, Irene Arrias protagonistaren bizitzako gertakariak abiapuntu hartuta.

Gai horrekin, idazleak inguruan dugun eta betidanik egon den indarkeria agerian jarri nahi du, mundu osoan gertatzen diren eraso, tortura, hilketa, bortxa, exekuzioak zein krimenak hain zuzen ere. Hori oinarri hartzen du Irene Arriasen bizitza kontatzean, eta loturak sortzen ditu munduko gertakari bortitzen eta protagonistaren bizitzako gertakarien artean.

Argumentua

Irene Arrias kezka eta obsesioz beteta bizi den emakumea da. Jaiotzen denetik, bizitzako momentu asko munduan gertutako ekintza bortitzekin daude erlazionaturik. Algortan hazi eta hezten da, euskaldunez inguraturik. Unibertsitatea amaitu bezain laster klaseak emateko aukera ematen diote eta orduantxe ezagutzen du bere senarra izango den gizona, Ibon. Ezkondu eta zenbait urtera, alaba bat izatea erabakitzen dute. Enpresa batean ere hasten da lan egiten Irene, eta bertan hasten da bere amets gaiztoa: gau batean zuzendariak Ireneri dei egiten dio, etxera ez itzultzeko esanez, pertsona arriskutsu batzuk bere bila doazelako. Irenek kasu egiten dio eta ez da etxera itzultzen, baina egun batzuk pasatuta protagonista aurkitu eta bahitu egiten dute. Logela arraro batean sartzen dute, eta han Irenek tortura antzeko bat jasaten du. Azkenean, ezezagun arriskutsu horien eskuetan hiltzen da protagonista.

Istoria

Istoria gertakizunez osaturiko istorioa da, beraz, ezinezkoa litzateke istorioa gauzatzeko beharrezkoak diren gertakizun batzuk soilik aukeratzea. Nobelak gertakari samin askoren sare bat josiz, sufrikarioaren aurrean paratzen gaitu. Gertakizun bortitz guztietatik garrantzitsu batzuk aipatzekotan, Euskal Herriko indarkeria eta Ruandako genozidioa izango lirateke, eta, Irene Arriasen bizitzan, enpresako zuzendariak deitu eta etxera ez itzultzeko esaten dion momentua.

- Ruandako genozidioa gertakari garrantzitsutzat hartzen du idazleak: Ruandan gertaturiko sarraskia eta estatu kolpeei egiten die erreferentzia, herrialde horretan gertatutako krimen guztien ondorioak aipatuz. Gertakizun hori garrantzitsua da istoriorako, gertakari bortitzenetakoa delako.

- Euskal Herriko indarkeria: Euskal Herrian garrantzi handia ematen dio ETAk egindako eraso, hilketa, atentatu, eta krimenei, gertakari lazgarriak izateaz gain, Irene Arriasen ingurunean gertatzen delako.
- Irene Arriasen bizitzan gertakizun bat aipatzekotan, amaieran zuzendariak bulegora deitu eta etxera ez joateko esaten dionean izango litzateke, istorioa guztiz aldatzen duen momentu inportantea baita.

Pertsonaiak

Istorioan, Unai Elorriagak pertsonaia asko aurkezten ditu istorioak aurrera egin ahala. Hala ere, istorioa garatzeko orduan, horiek guztiak ez dira garrantzitsuak, idazleak ez duelako haietan asko sakontzen.

Irene Arrias da pertsonaia nagusia, lehen mailako pertsonaia hain zuzen ere, istorioak aurrera jarraitu ahal izateko ezinbestekoa den pertsonaia. Irenek, jaiotzetik, atentatuak, hilketak, izugarrikeriak... ikusi izan ditu bai bere inguruan, bai egunkarietan, baita telebistan edo irratian ere. Irene emakume ausarta eta argia da. Kezkaz eta obsesioz bizi da, gertakari bortitzez inguraturik dagoela sentitzen duelako eta indarkeriari erreparatzeko joera du, eskura dituen baliabide guztiak arakatuz: liburuak, egunkariak... Istorioak aurrera egin ahala, Irene Arrias, pertsona bezala, garatu egiten da eta heldutasunera nola heltzen den antzeman dezakegu.

Bigarren mailako pertsonaiak ere agertzen dira, senarra, ama edota bere alaba adibidez, baina autoreak aipatu baino ez ditu egiten, ez ditu guztiz deskribatzen eta ez da horietan bizitzetan barneratzen.

Egituraketa

Istorioa antolatzeko orduan, autoreak lau atal nagusi desberdindu ditu istorioan: lehenengo atalean, protagonistaren haurtzaroa narratzen da; bigarrenan, Irene Arriasen gaztaroa kontatzen du idazleak; hirugarrenean, helduaroa eta amatasuna; eta, azkenengoan, ondorio batzuk adierazten ditu Unai Elorriagak, protagonistaren izaerak sortzen dituen gertaera batzuk bereziki.

Atal batetik bestera igarotzeko, idazleak zenbait narrazio labur kontatzen ditu, Irenek egunkarietan aurkitutakoak, indarkeria oinarri duten narrazioak, jakina.

Autoreak erabili duen egituraketa, lineala eta ez lineala, biak direla esan genezake: Irene Arriasen bizitza, nobelaren oinarri den istorioa hain zuen, linealki egituratuta dago, hau da, atalak ordena kronologikoan antolatuta daude, baina, atal bakoitzaren barnean, gertakariak desordenan kontatzen ditu, ez darama ordena zehatzik: XX. mendean gertaturiko masakre bat kontatu ondoren XIX. mendeko genozidioari egin diezaiokie erreferentzia.

Horretaz gain, flash-backaz ere baliatzen da, XIX. edo XX. mende hasierako gertakarietara erreferentzia egiteko, edota protagonistaren ama edo amama gazteak zireneko momentuaz zer edo zer kontatzeko.

Kanpo egituraketari dagokionez, liburua lau ataletan banatzen da, eta atal bakoitzean zenbait narrazio labur agertzen dira, egunkarietatik ateratakoak.

Baliabideak

Iazko Hezurak eleberria genero narratiboaren barnean kokatzen da, narrazio guztiek dituzten ezaugarriak nabari direlako: narratzaile baten bidez istorio bat kontatzen du, pertsonaien presentzia ageri da, denboraren kokapena darabil eta, azkenik, genero honetako kontakizunek duten egitura bera du, hau da, lehenengo hasiera edo sarrera, ondoren garapena edo korapiloa eta, bukatzeko, amaiera. Idazleak eskema hori jarraitzen duen arren, flash-backaz baliatzen da: Irene Arriasen bizitzako une bat kontatzen duen bitartean, atzera egin eta hainbat urte lehenago gertaturiko bortizkeriak kontatzen ditu, esaterako.

Estiloari dagokionez, esaldiak kontzientzia izugarriaz neurtzen ditu, estilo garbi batekin. Hitzen eufoniak zaintzen ditu eta, adjektibo berezien bidez, hau da, berez elementuak ezaugarritzen dituzten adjektibo arruntetatik urruntzen diren adjektiboen bidez, metafora eta epifania harrigarriak lortzen ditu, ezohikoak. Horri esker, irakurmena atsegingarriagoa izatea lortzen du.

Autore honek, ahozko ezaugarriak ere sartzen ditu: erdarakadak, errepikapenak, elkarrizketak, menderakuntza gutxiko esaldiak... Horiek guztiak erabiliz, idazleak irakurlea txunditzea bilatzen du. Darabilen poetika surrealista jatorria du bere gustuko idazleengan, Faulkner, Julio Cortazar, Rulfo eta Borges literaturan, bereziki. Esate baterako, estilo horretako elkarrizketak sartzen ditu:

—*Ondo?*

—*Ondo.*

—*Ordu asko?*

—*Asko...*

—*Atzo? –Leire Arruzak.*

—*Izan nuen denbora.*

Istoriaa kontatzen duen narratzailea 3. pertsonako narratzaile orojakilea da, hau da, gertatzen den eta gertatuko den guztia daki narratzaile hau pertsonaien buruan barneratzen da eta haien pentsamendu guztien berri daki. Pertsonaien sentimenduak eta gertakarien arrazoiak ere ezagutzen ditu narratzaileak. Hala ere, istorioaren atal bakoitzaren amaieran kontatzen dituen narrazio batzuk lehenengo pertsonan daude idatzita. Narratzaile orojakile horren aztarnak aurkitu ditzakegu esaldi horretan, adibidez:

Hondamendiaren sentsazio hori ere bazeukan, ez oso bizia, baina tentsioan zegoen, hotz-korrante bat sentitzen zuen arnas aparatuan, digestio-aparatuan beharbada, ez zekien ondo, ahotik sabelera doazen hodietako batean.

Esaldi horretan antzeman daiteke narratzaileak pertsonaiaren sentimendu eta sentsazio guztiak ezagutzen dituela, bere barnean sartu eta kontrolatu egiten duela.

Iritzia

Eleberri honetan, idazleak hainbat gai jorratzen ditu eta, horri esker, *lazko Hezurak* nobela osatuagoa dela esan daiteke. Edozein irakurlek eskertuko lukeen zerbait idazleak irakurlea istorioan barneratzeko ahalegina izango litzateke eta, kasu honetan, Unai Elorriagak lortu egin du: norberaren barnean inpaktua sortzeko moduko gertakariak kontatzen ditu, hausnarketa egitera bultzatuz.

Hori gutxi balitz, idazleak Euskal Herrian garrantzi handikoak izan diren gertakariak eta bizipenak dakartza oroimenera: gerra eta gerra ondorena, errepresioa, ikastolen sorrera eta garapena, ETA, Guardia Zibila, hildakoak... Kontakizun horiei guztiei esker, Unai Elorriagak euskal irakurlea istoriotik hurbilago sentitzea lortzen du eta, jende nagusiaren kasuan, urte haietan bizi izandako gertakariak oroimenera ekartzea lortzen du.

Gainera, idazkera garbia eta adierazkorra du Unai Elorriagak eta euskara ulergarria darabil, gure hizkuntzan irakurtzeko erreparoa dutenek ere hiztegi arazo handirik gabe irakurtzeko modukoa. Erabiltzen duen hiztegia edozein irakurlek ulertzeko modukoa denez, liburua eskuetan duenari irakurketa errazten dio, hori da liburuak duen ezaugarri bereziena. Ez da, ordea, liburu eroso, denbora-pasa edo egun batean irakurtzekoa, hainbat datu sartzen

dituelako, datak, izenak, etab. Horren ondorioz, istorioan agertzen diren datu guztiak buruan izatea nahiko zaila da.

Liburua irakurri ondoren, Unai Elorriagari atera ahal zaion akats bakarra pertsonaiak dira. Obra pertsonaia bakar batean oinarritzen da, besteak ez ditu sakontzen, aipatu baino ez ditu egiten. Horrek pertsonaia bakarra ezagutzea ahalbidetzen dio irakurleari, eta gainerako pertsonaia guztiak ahaztea. Hori akats kontsideratu daiteke, idazlearen helburuetako bat, azken finean, irakurlearen imajinazioa jorratzea delako, pertsonaiekin bereziki, obra honetan idazleak ez du helburu hori lortzen.

Liburuko pasarte erakargarri bat aipatzekotan, azkenengoa izango litzateke. Laugarren atala, Irene bahitu egiten duten atala hain zuzen, parterik interesgarrienetarikoa da, irakurlea liburua zabalik mantentzera behartzen duten horietakoa. Idazleak bikain deskribatzen ditu momentu guztiak, baita protagonistaren azkenengo momentuak ere. Ezaugarri justuak azaltzen ditu, ez gutxiegi ez gehiegi.

Azkenik, *lazko Hezurak* eleberria norbaiti gomendatzekotan, neska-mutil gazteei izango litzateke, historia eta gerrei buruz interesa dutenei batez ere. Irakurle euskaldunei ere gustatuko litzaieke istorioa, Algortan edo inguruan bizi direnei bereziki, toki ezagunetako gertakariak interes gehiago sortzen dutelako irakurlearengan.

Bibliografia

lazko Hezurak, Unai Elorriaga. Susa, 2014.

Webgrafia

- <http://kritikak.armiarma.eus/?p=6331>
- <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee36360>
- <http://www.unaielorriaga.com/biografia.htm>
- http://www.berria.eus/albisteak/105872/indarkeriari_buruzko_gogoeta_bat_da_unai_elorriagaren_iazko_hezurak.htm
- www.unaielorriaga.com
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>